

2005eko apirilean bidaiarien sarrerak %4 gehitu ziren

Alabaina, bidaiariak EAEn igarotako gau kopurua %1 gutxitu zen

EUSTATen datuen arabera, 2005eko apirilean 142.938 bidaiarik hartu zuten ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 5.000 gehiagok eta, horrenbestez, %4ko gehikuntza izan zen. Erkidegora etorritako bidaiari kopuruak bilakaera positiboa izan du bai Bizkaian (%10) eta bai Gipuzkoan ere (%3); aitzitik, Araban kopuru hori aurreko urteko hilabetearen aldean %7 gutxitu da. Hileko datu horiek interpretatzeko eta urte arteko alderaketak egin ahal izateko kontuan hartu behar da 2005eko Aste Santua martxoan izan dela eta 2004koa apirilean. Horrela, 2005eko martxoa eta apirila 2004ko hilabete berberekin alderatuta (Aste Santuaren eragina kentzeko), EAera etorritako bidaiari kopurua %7 gehitu zen eta gaua Euskal Autonomia Erkidegoan igaro dutenen kopurua %8 gehitu zen.

2005eko apirilean Estatutik EAera etorritako bidaiarien kopurua %6 gehitu zen baina atzeritik etorritakoena, aldiz, %1 gutxitu.

Estatuari dagokionez, Katalunia eta Galizia izan ezik gainerako Autonomia Erkidegoetatik etorritako bidaiari kopurua gehitu egin zen. Fluxu garrantzitsuenak aipatzearren, Madril, Andaluzia, Aragoi, Asturias, Valentzia eta Gaztela-Mantxatik etorritako bidaiari kopurua gehitu egin zen. Atzeritarrei dagokienez, besteak beste Frantziatik, Alemaniatik, Italiatik eta Irlandatik etorritako bidaiari kopurua gehitu egin zen baina Erresuma Batutik, Portugaldik, AEB-Kanadatik eta Belgikatik etorritakoen kopurua gutxitu egin zen.

Bestalde, 2005eko apirilean 255.532 gau igaro zituzten bidaiariak; hau da, aurreko urteko apirilaren aldean gaua igaro zutenen kopurua %1 gutxitu zen, guztira 2.000 gau gutxiago igaro baitzuten. Soilik Bizkaian (%1) eman zen igarotako gauen urtetik urterako bilakaera positiboa, Gipuzkoan (%-1) eta Araban (%-4) beherantz egin baitzuen.

Batez besteko egonaldien iraupena murriztu egin da urte batetik bestera Euskal Autonomia Erkidegoan: aurreko urtean 1,87 egunekoa izan zen baina 2005eko apirilean 1,79koa. Gutxitze hau Bizkaian (1,96etik 1,81era) eta Gipuzkoan (1,87tik 1,79ra) ere eman zen. Alabaina, Araban batez besteko egonaldiak gehitu egin ziren: aurreko urtean 1,67koa zen eta 2005eko apirilean 1,73koa.

Plazen okupazio mailak %2ko murrizpena izan zuen; aurreko urteko apirilean %43,66koa zen eta aurtengo apirilean %42,63koa. Aitzitik, logelen arabera okupazio mailak %4ko bilakaera positiboa izan zuen hiru lurraldeetan; hain zuzen, aurreko urtean %52,23koa zen eta aurtengo %54,35koa.

Nekazalturismoak: bidaiarien sarrerak gehitu egin ziren (%4) eta bidaiariak igarotako gauak gutxitu (%-36)

Apirilean 7.585 bidaiari izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %4 gehiago; bidaiari kopurua %22 gehitu zen Bizkaian baina Gipuzkoan (%2) eta Araban (%4) gutxitu egin zen. Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora etorritako bidaiarien kopurua %6 gehitu zen; aitzitik, atzeretik etorritakoen kopurua %10 gutxitu zen Euskal Autonomia Erkidego osoan.

Apirilean 14.033 gau igaro zituzten bidaiariak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan. Honek beherapen nabarmena ekarri du, %36koa, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Urtetik urtera, beraz, hazkunde-tasa garrantzitsuak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan igarotako gauak %38 gutxitu dira, Bizkaian %36 eta Araban %31.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldi kopurua ere murriztu zen Euskal Autonomia Erkidego osoan, 2004ko apirilarekin erkatuta; hain zuzen, orain dela urtebete 3,03 eguneko batezbestekoa izan zen eta aurtengo apirilean 1,85ekoa. Urtetik urterako beherapen hori hiru lurraldeetan eman zen.

Plazen okupazio mailak %40ko beherapena izan zuen eta logelen okupazio mailak %37koa. Beherapen hori, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eman zen.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp

1. taula: hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	04/2005	%	04/2004	%	Δ%	04/2005	%	04/2004	%	Δ%	04/2005	%	04/2004	%	Δ%	04/2005	%	04/2004	%	Δ%				
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	255.532	100	257.433	100	-1	39.690	100	41.259	100	-4	111.314	100	110.098	100	1	104.528	100	106.076	100	-1				
Estatukoak	183.550	72	184.705	72	-1	32.138	81	34.604	84	-7	75.417	68	71.852	65	5	75.995	73	78.249	74	-3				
Atzerrikoak	71.982	28	72.728	28	-1	7.552	19	6.655	16	13	35.897	32	38.246	35	-6	28.533	27	27.827	26	3				
Hiriburua	162.941	64	165.411	64	-1	30.957	78	30.748	75	1	76.974	69	77.038	70	0	55.010	53	57.625	54	-5				
Kostaldea	31.260	12	32.554	13	-4	-	-	-	-	-	11.074	10	11.869	11	-7	20.186	19	20.685	20	-2				
Barnealdea	61.331	24	59.468	23	3	8.733	22	10.511	25	-17	23.266	21	21.191	19	10	29.332	28	27.766	26	6				
BIDAIARIEN SARRERAK	142.938	100	137.557	100	4	22.981	100	24.714	100	-7	61.664	100	56.170	100	10	58.293	100	56.673	100	3				
Estatukoak	105.115	74	99.419	72	6	18.607	81	19.979	81	-7	44.350	72	39.042	70	14	42.158	72	40.398	71	4				
Atzerrikoak	37.823	26	38.138	28	-1	4.374	19	4.735	19	-8	17.314	28	17.128	30	1	16.135	28	16.275	29	-1				
Hiriburua	91.831	64	88.417	64	4	16.818	73	17.844	72	-6	41.909	68	39.138	70	7	33.104	57	31.435	55	5				
Kostaldea	15.778	11	15.831	12	0	-	-	-	-	-	6.270	10	6.049	11	4	9.508	16	9.782	17	-3				
Barnealdea	35.329	25	33.309	24	6	6.163	27	6.870	28	-10	13.485	22	10.983	20	23	15.681	27	15.456	27	1				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,79		1,87		-4	1,73		1,67		4	1,81		1,96		-8	1,79		1,87		-4				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	42,63		43,66		-2	41,33		42,84		-4	41,93		43,44		-3	43,93		44,23		-1				
Hiriburua	46,30		46,97		-1	48,04		46,46		3	46,55		47,76		-3	45,04		46,23		-3				
Kostaldea	42,81		44,86		-5	-		-		-	34,47		38,41		-10	49,37		49,64		-1				
Barnealdea	35,15		36,07		-3	27,64		34,90		-21	34,22		34,59		-1	39,16		37,78		4				
BETETZE-MAILA GELAKA	54,35		52,23		4	52,87		50,71		4	54,85		54,21		1	54,43		50,63		8				
Hiriburua	59,30		56,49		5	62,47		57,00		10	59,74		59,40		1	56,38		51,99		8				
Kostaldea	50,96		50,20		2	-		-		-	43,05		45,57		-6	57,87		53,08		9				
Barnealdea	45,47		43,24		5	31,50		35,42		-11	46,94		43,01		9	50,17		46,71		7				
NEKAZALTURISMOA																								
GAUALDIAK	14.033	100	22.013	100	-36	2.563	100	3.739	100	-31	4.513	100	7.031	100	-36	6.957	100	11.243	100	-38				
Estatukoak	12.312	88	20.024	91	-39	2.339	91	3.564	95	-34	3.978	88	6.137	87	-35	5.995	86	10.323	92	-42				
Atzerrikoak	1.721	12	1.989	9	-13	224	9	175	5	28	535	12	894	13	-40	962	14	920	8	5				
BIDAIARIEN SARRERAK	7.585	100	7.275	100	4	1.396	100	1.458	100	-4	2.548	100	2.094	100	22	3.641	100	3.723	100	-2				
Estatukoak	7.044	93	6.675	92	6	1.348	97	1.418	97	-5	2.371	93	1.871	89	27	3.325	91	3.386	91	-2				
Atzerrikoak	541	7	600	8	-10	48	3	40	3	20	177	7	223	11	-21	316	9	337	9	-6				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,85		3,03		-39	1,84		2,56		-28	1,77		3,36		-47	1,91		3,02		-37				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	17,98		29,76		-40	16,43		24,63		-33	18,23		29,89		-39	18,46		31,87		-42				
BETETZE-MAILA GELAKA	20,33		32,06		-37	17,72		25,36		-30	20,86		32,11		-35	21,03		34,88		-40				

Iturria: EUSTAT